

Astekaria

# BARREREN elgoi



## Goazen jolastera

**AUTOEN  
ASEGURUETAN  
EZ DAUKAGU  
KONPETENTZIARIK**

**Migel Angel Canales  
Zabaleta**

Orain ZUZENBIDE BERRI honetan gaude

**P. M. Urruzuno, 31 - Tel.-Faxa: 74 28 64 - ELGOIBAR**



# Promociones Inmobiliarias MENDARO



GOI MAILAKO KALITATEZKO  
ETXEAK 12.000.000 pta.tik AURRERA

- 2 eta 3 logela
- Berogailu indibiduala
- Marmola atarietan
- Gineako zurak
- Igogailua garajeraino
- Antena parabolikoa

**LOKAL KOMERTZIALAK - GARAJEAK - TRASTELEKUAK**

INFORMAZIOA: 13 35 13 (ZARAUTZ)

Tel. Faxa: (94) 491 23 19 (ALGORTA)

Tel: 74 42 83 (**ELGOIBAR**)



## II. MORKAIKO ARGAZKI LEHIAKETA

- Gaia: Mendia
- Neurria: Librea
- Koloretan nahiz zuri-beltzean
- 4 argazki gehienez
- Elgoibartarrei eta Morkaiko M.E.ko bazkideei (Elgoibarkoa ez bada) zuzendutako lehiaketa.
- Argazkiak entregatzeko epea: Abenduak 20, ostirala (Morkaikon)

### OHARRAK:

- Argazkien atzealdean non eta noiz ateratakoak diren jarri behar da.
- Argazkiak sobre edo kartazal handi batean sartu behar dira. Bertan kartazal txiki bat sartu egilearen izen-abizenekin eta telefonoarekin. Argazkietan eta sobre txikian ezizena jarri.
- Argazkien erakusketa abenduaren 30etik urtarrilaren 7ra bitartean egingo da Kultur Etxean.

elgoi**BARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12  
Faxa: 74 37 04

**ARGITARATZAILEA:**

Elgoibarko Izarra.

**LAGUNTZAILEA:**

Elgoibarko Udala.

**ZUZENDARIA:**

Ainhoa Lodoso.

**ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:**

Andres Alberdi.

**KAZETARIAK:**

Ainhoa Lodoso,  
Jasone Osoro.

**PUBLIZITATEA:**

Myriam Aldazabal.

**MAKETATZAILEA:**

Maite Rementeria.

**ADMINISTRAZIOA:**

Amaia Martin,  
M. Angeles Ortuoste.

**KOLABORATZAILEAK:**

Irati Agirreazaldegi, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Juan Mari Elustondo, Ina Garagarza, Ane Goikoetxea, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzio Otaegi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabalo, Lucia Zubiaurre.

**BANAKETA ARDURADUNA:**

Imanol Larrañaga

**INPRIMATEGIA:**

Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)

**TIRADA:** 3.800 ale

**LEGE GORDAILUA:** SS-  
1.038/92

**ISSN:** 1133-021X


elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



kutxa fundazioa  
fundación kutxa

# ZENBAT BURU

## HAINBAT ABURU



### “Ez nau izutzen negu hurbilak...”

**H**orrelaxe hasten da Xabier Leteren poema eder bat. Gero, poema hori bera kantu bihurtu du oiartzuar abeslariak bere azken diskoan.

Ziur aski negu hurbilaren atarikoia da aste honetan bertan aldatu diguten ordute-gia: ordubete atzeratu behar izan baitugu ordularia, neguko ordutegiari egokitu ahal izateko.

Baina ordua aldatzeaz aparte, eguraldigizonen ere mintzo zaizkigu urte-sasoi honi buruz. Hauxe zioen Pello Zabalak orain aste batzuk Donostiako egunkari batean (DV 1996/09/28): “urriaren 22tik aurrera, agian geroroxeago, eta azaroaren 27a bitartean eguraldi txarra izango dugu, ipar-haizea nagusituko da, ekaitzak joko du, batez ere, itsas partean...”. Beraz, pronostikoa balekoa bada, gain-gainean dugu negu hurbil hori.

Gainera, gure aurrekoentzat urriaren 28ko San Simon eta San Judaren egunak jarri ohi zuen uda eta neguaren arteko muga: “San Simon eta San Juda, joan zen uda eta negua heldu da”.

Baina Leteren poema eta kantak meteorologiako alor hori baina urrunago heldu nahi du. Oiartzuarrarentzat giza-bizikizun bortitz baten irudi da “negu hurbil” hori. Heriotza beraren irudi, hain zuzen. Izan ere, 1991n argitara emandako disko horretan dauden hamar kantuetatik hiruk heriotza dute gai nagusi eta izenburu hauekin agertzen dira: “Eskaintza, nere aita zenari”, “Heriotzaren begiak” eta aipatutako “Neguaren zain” izenburua daramana.

Poema eder hauek egunotan entzutean,

nola ez, Olasoko hilerria etortzen zaio bati gogora. Hilerri horretantxe baitago heriotzaren negu hurbila gogoratzen digun baratzeta isila; gure aurrekoen oroitzapenak gordetzen dituen bakezko enparantza.

Leteren poema horiek gizakiak aurpegi eman behar dion arazo gogor bat jartzen digute aurrez aurre: zer egin, nola konpondu, zer hitzarmen egin heriotzarekin?


Morboan eta izuan erortzea da pertsonak har dezakeen bide bat; bizitza hau ahalik eta gehiena gozatzea izan daiteke beste erantzun bat. Baina, zuhaitzetatik behera datozen orbel-ostoen antzera, gu ere kadukoak izanik, ezin ditugu menperatu heriotzaren erresumara bultzatzen gaituzten arerio indartsuak, hala nola, zahartzen joatea, gaixotasuna, nekea edo sufrimendua. Hauek guztiak gure bizitzako bide-lagun eta heriotzaren mezulari ditugu mundu honetan.

Eta ezer bada, hauxe da gure aurreko askok erakutsi zigutena: duintasunez eta itxaropenez aurrera egiten heriotzaren “negu hurbil” horri.

Horregatik dio hain egoki Xabier Letek bere aita zenari eskainitako poeman: “...eresirik gabe hil ziren aurrekoak, duintasan isilez, harridura gabe zorte bakartian... lanean galdu zuten arrenkura gabe bizitzaren dema onets izan ziren ahal zuten neurrian beren buruekin...”

**Benantzio Otaegi**

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*





## GALDERAK

“Asteartean zinera joan ginen gaueko 10etan, eta pelikularik ez zegoela ikusi genuen. Zergatik kendu dute astearteetako emanaldia inongo abisurik gabe?” Udal Kultura Zerbitzutik adierazi digutenez, asteartean ez da zinerik egongo ostegun eta ostiralean zine kluba egoten delako.



## KEXAK

- Herriko Antzokiko arduradunak deitu digu honako kexa hau argitaratzeko: “Bigarren aldia da Herriko Antzokiko goiko pisuko **estintorea salan hustuzten dutela**”. Denona den zinarekiko errespetu gehiago eskatzen die gazteei.

- Andikanon pasiaran ibiltzen den jubilatu batek deitu digu bertan ibiltzen diren **txakurrek lasaitasuna apurtzen diotela** esateko. Gainera, jende gehien ibiltzen den unean soltatzten omen dituzte txakurrak. Alde batean txakurrak (eta hauen kakak!) eta bestean ibaia, ezin dute aurkitu bilatzen duten lasaitasuna.



## TXALOKAK

Herritar batek **Odol Emaileen Elkarte**a eta **Elgoibarko odol emale guztiak** txalotu nahi ditu. Izan ere, Elgoibarren 20.000 odol ontzitxo jaso dira 30 urtean. Gipuzkoan 500.000 ontzi betetzera iritsi gara.

## ESKUTITZAK

### Kalea guztiona da

**K**ilometroetan Zazpiki Irratiak beste hainbat kolektibok bezala materiala saltzeko postua jarri zuen San Frantzisko kalean. Ez zen denbora asko pasatu munizipalak etorri ziren arte, alkateak, kaleak jendez beteta egongo zirela aitzakizat jarritz, postuak jartzea debekatu zuela esan ziguten, eta guk kendu ezean postua beraiek kenduko zigutela. Hori bai, kolektiboarenak ez ziren beste postuek ez zuten inolako arazorik izan egun guztian zehar jendez gainezka zeuden kaleetan egoteko. Haiek, dirudienez, ez dute trabarik egiten.

Kalea guztiona da eta inork ez digu ukatuko nahi dugunean eta nahi duguna egiteko bertara ateratzea, eta are gutxiago bere soldatapeko morroiak inork sinesten ez dituen aitzakiak jarritz gu mehatxatzena bidaltzen dituenak.

**Zazpiki Irratia**

### Pinturarekin jolasean

**I**rudimen eta originaltasun artistiko eskasia dagoen garai honetan, Elgoibarren pintura modernistaren eredu den “mural” bat ikusteko aukera badauka Eibarreranako bidea hartzen duen edonork: perspektiba bereziko marrazkia, gaztelaniazko neurri ezberdinetako hizkiak (batzuk gorago, besteak beheago), bi kolore oinarriko erabilpena soilik... (horia eta urdina). Halere, ezin dugu lana orijinaltzat jo, egileek beste lan baten gainean margotu baitute.

Gaurdaino, bertan lan egin duten artistek besteen lanak errespetatu egin dituzte; izan ere, denontzat baitago tokia. Auzokoak egindako lana ez gustatzea ez da gainetik beste bat margotzeko arrazoia, artisten egile eskubideak eta adierazpen askatasuna gogoan.

Ziririk sar ez diezazuten, artelan horren faltsuaz aditzera eman nahi dizuegu, beste batzuren kontura aberasteko intentzioaz egin baita, zeinak azpiko koadro abangoardista izkutatzen baitu.

Udalaren eginkizuna zatekeen errestauratze talde bat bidali eta azpikoa berreskuratzea.

**Elgoibarko Jarrai**

## HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





**E**lgoibarko Eliz Abesbatza 1947. urtean osatzen zutenak dira argazkikoak. Olaberrian atera zuten argazkia 60 lagun hauek, abestera joan ziren batean. **Ana Igartuak** ekarri digu erretratua. Juanito Gorostizaren laguntzaz batean eta bestean galdetu ondoren eta askoren izena inguratzerik izan ez dugunez, hona hemen lortu ditugunak:

Arbola ondotik hasita, atzean: **Isaac Azpiazu (†)**, ezezaguna, **Felipe Gabilondo (†)**, ezezaguna, ezezaguna, **Manolo Mujika (†)**, emakumea, **Jose M. Igartua (†)** eta **Felix Zubiaurre**.

Bigarren ilaran: **Don Jose M. Agirrebalzategi apaiza (†)**, ezezaguna, ezezaguna, **Migel Gabilondo (†)**, **Jose Juaristi (†)**, emakumea, **Julian Iriondo**, **Migel Sanchez**, **Pedro Gallastegi (†)**, **Ignacio Bereziartua**, **Ladis Elorza**, **Pakito Muñoz (†)**, ezezaguna,

**Antonio Azpiazu (†)**, **Faustino Barrenetxea “Navarrico” (†)**, **Manuel Gabilondo (†)**, ezezaguna, **Ramon Elorza (†)** eta ezezaguna.

Hirugarren ilaran: **Pepe Arano (†)**, **Agustin Zubiaurre (†)**, **Pedro Izagirre (†)**, **Moisés Agirre**, **Jose Gabilondo (†)**, atzean emakume bat, umea, goratxeago **Julian Oteiza (†)**, emakumea, **Ascensio Bereziartua (†)**, **Gillermo Armendia (†)**, **Florencio Gabilondo (†)**, **Jose Zubiaurre**, **Bartolome Osoro (†)**, **Ignacio Bereziartua zuzendaria (†)**, **Canuto Gabilondo (†)** eta **German Uriguen tanbolinarekin (†)**.

Laugarren ilaran: ezezaguna, ezezaguna, umea, **Juanito Armendia**, **Jose Peñalba (†)** eta emakumea.

Aurreko ilaran: **Ascensio Olalde (†)**, ezezaguna, **Valentin Ansola (†)**, ezezaguna, **Juan Bautista Izeta (†)**, **Jacinto Astiazaran (†)**, **Jose M. Rodriguez (†)**, ezezaguna, ezezaguna, **Felipe Mugerza (†)**, emakumea eta **Leoncio Gabilondo (†)**.




La Previsora Bilbaina  
Aseguradora Riazor, S.A.  
Aseguru konpainia (Eibarko delegazioa)

## MUGICA Funeraria

— 24 orduko hileta zerbitzua —

Bidebarrieta, 20 - behea, esk. - 20600 EIBAR

Tel: 20 19 51



# jolasera

hartz. Horra hor gaur egun Elgoibarren martxan dauden hiru  
oko ordurik gehienak okupatuak dituzte musika, dantza,  
jolasteko denbora ere era egoki batez antolatu behar. Hiru  
lea izanik, badu bakoitzak ezaugarri berezirik. Eta horiek

## Atxutxiamaika

Orain dela 15 urte inguru haur elgoibartarrek Parrokiako arkupeetan Atxutxiamaikara jolasten zuten. Gaur egun desagertua dagoen jolas haren izena berreskuratu du Elgoibarko Izarrako begirale taldeak. 1995. urtean hasi zen martxan Atxutxiamaika. 19 eta 27 urte bitarteko 28 gaztek osatzen dute taldea.

Mariaje Iranzo zuzendariaren hitzetan, "hurrek ahalik eta hobetoen pasatzea da gure helburu

neuria. Hortik aurrera, noski, beste azpihelburu batzuk ere daude, guztiak oso garrantzitsuak. Esate baterako, euskararen erabilera susper-tzea haurren artean eskolaz kanpoko orduetan, ikastetxe desberdinetako haurren arteko harremana lortu, talde lana bultzatu, haurraren nortasuna eta autonomia garatu, berdintasuna, integrazioa, ingurugiroa...".

Atxutxiamaikak antolatzen dituen ekintzak eskolaurre eta 14 urte bitarteko haurrak hartuko ditu, oraingoz 11 urte artekoekin lan egiten badute ere, adinaren araberrako gauzak prestatuz.

### Lau zutabe

Urtea lau zutabetan banatzen da. "Larunbatero" LH.ko 2., 3., 4. eta 5. mailako hurrei zuzendua dago eta bi txanda izaten dira, bakoitzak 8-10 larunbat izaten dituelarik. Arratsaldeko 4ak eta 7ak bitartean hainbat ekintza desberdin antolatzen dituzte: eskulanak, antzerkia, jolasak... Bigarren zutabea Gabonetako egitasmoa litzateke. Kasu honetan 8 eguneko iraupena du programak, oporretan dauden astea hain justu, eta L.Hko 1., 2. eta 3. mailetako umeek parte hartzen dute.

1997. urteari begira Aste Santua ere izan du kontuan Atxutxiamaikak eta oraingo honetan udaleku itxiak antolatuko ditu. Hau da, bost eguneko irteera egingo dute Elgoibartik kanpoko barnetegi batera. Udan, berriz, orain artean udaleku irekiak egin izan dituzte. Jolasak, irteerak eta eskulanak tartekatuz, uztaillean zehar goizero elkartzen dira. Datorren urtean udaleku itxiak ere antolatuko dituzte Aubixan.

**Programa bakoitzak 2.000 pta.ko kostua dauka.**

Urteko aurrekontua 1.700.000 pta.koa da eta Udalak, Eusko Jaur-laritzak eta Aldundiak diruz laguntzen dute. Atxutxiamaikako begiraleek euren lanagatik kobratu egiten dute. Nahiz eta Elgoibarre-



Atxutxiamaikak San Fermin Txiki eguna antolatu zuen uztailaren 7an.

# Elgoibarko prest

rako sortu zen, gaur egun Atxutxiamaikak begirale zerbitzua eskaintzen du bai herrian bertan bai eta kanpoan ere hala eskatzen dutenentzat. Aurten, esaterako, Antzuolan izan dira. Talde honek antolatzen dituzten ekintza guztietan, haurrei aseguruia egiten zaie.

Orain gutxi Udalak Pedro Muguruzako lokal bat utzi dio Atxutxiamaikari. Taldea osatzen duten gazte guztiek begirale titulua dute eta horietatik bostek zuzendari titulua ere bai. Halere, garbi dute beti dagoela zerbait ikasteko eta hankapalo ikastaroa egin zen era berean, goma-espuma ikastaro bat

eta magiari buruzko beste bat ere egitekotan dira.

## Zuhaitz

Orain dela 10 urte Madalako kristau taldearen barruan sortu zen Zuhaitz aisialdi taldea. Printzipioz Madala inguruko haurrei bakarrik zegoen zuzendua baina duela lau urtetik hona herri mailan egiten dute lan. Zuhaitzek giza baloreak landuz egiten du lan, kristautasunaren giza baloreak iragarri eta zabalduz. Momentu honetan 10 begirale daude, 17 eta 27 urte bitartekoak eta guztiek musutruk egiten dute lan, ezer kobratu gabe.

## Garasoen hitzak

### MARIA JESUS PINEIRO




“Alaba bakarra daukat, zazpi urtekoa eta iaz izan nuen lehen aldiz Atxutxiamaikaren berri. Alabari esan zioten eskolan eta berak hala eskatuta eman nuen izena. Oso gustura dago eta gu ere bai. Helburu nagusia, euskara lantzea da. Senarrak eta biok ez dakigu euskaraz eta ekintza hauen bidez gure alabak hizkuntza indartzea nahi dugu. Horrez gain, garrantzitsua da beste eskoletako haurrekin ere harremanak izatea eta txikitatik bere buruaz baliatzen ikastea”.

### CONCHI LINACERO



“Gazteen Gurutze Taldera joaten da nire semea berak hala eskatuta. Oso ondo pasa-tzen omen du eta aurten ere hasi aurretik desiatzen zegoen. Beste aisialdi taldeetan ere ibili izan da baina, dirudienez, hau du gustukoena bertan jarraitu nahi du eta. Larunbata noiz iritsiko zain egoten da. Batez ere jolastu egiten dute, txotxongiloak egin izan dituzte, irteerak noiz edo noiz... Gu pozik gaude lagun berriak egiten dituelako, esperientzia berriak ikasi eta telebitaz ahazten delako”.

Elgoibarko Aisialdi Taldeak				
Helburuak	Osasuna, bakea, berdintasuna, ingurugiroa eta solidaritatea	Euskararen erabilera sustapertzea. Jolasa, lagunartea eta integrazioa.	Kristautasunaren giza baloreetan oinarrituriko taldea	
Haurren adina	6-13	4-14	11-15	
Begirale kopurua	8	28	10	
Zuzendaria	Mikel Lizarralde	Mariaje Iranzo	Xabier Gorriti eta Andoni Lopez Sabando	
Erakunde eragilea	Gurutze Gorria	Elgoibarko Izarra K.E.	San Bartolome eta Ma-dalako Kristau Taldeak	
Lokala eta kontakturako telefonoa	Artetxe 74 3864	Muguruzako eskola zaharrak eta Ubitarte ☎ 74 16 26	Ubitarte 74 0203 742027	

## Hartzen al duzu parte aisialdiko ekintzetan?



### XABIER LOPEZ 6 urte

Atxutxiamaikakoekin jolas-ten dut. Nik esan nion amatxori jun nahi nabala. Lagun mordua eitxen ditxut eta asko jolasten dut: altxor bila, marrazkixak eitxen...



### MIREIA GARCIA 10 urte

Bai, eta oso ondo pasatzen dut Gurutze Gorrikoekin. Jolastu, margotu eta egun batzuetan mendira jutun gera eta beste herrietako Gurutze Gorrikoekin egoten gara.



### LARA URAIN 8 urte

Atxutxiamaikarekin hasi naiz aurten. Nik nahi naban apuntatzia larunbatetan jolasian ibiltzeko. Lagun berrixak ein ditxut eta esku-  
lanak ere eitxen ditxugu.



### UNAI ORTEGA 9 urte

Lagunak Atxutxiamaikan apuntau zian baina nik ere nahi naban jutia. Lehengo lagunekin eta berrixekin ere ibiltzen naiz eta gehixen an-  
terkixa gustatzen jata.



### AINHOA ALONSO 11 urte

Zuhaitz taldean nabil. Nere lagunak jutun dia eta aurten da lehenengo aldia. Oso gustura jutun naiz ze lagunak, jolasak eta joko mordua eitxen ditxugu.



### MIRYAM CID 9 urte

Atxutxiamaikan apuntau naiz aurten. Nere bi lagun jutun dia eta panpinak, jolasak eta gauza gehiago egiten ditugu. Bakarrik baino hobeto pasatzen dut.



Orain dela 10 urte sortu zen zuhaitz aisialdi taldea.

Zuhaitz 11 eta 15 urte bitarteko neska-mutilei zuzendua dago. Euren ekintzak larunbat arratsaldeetan izaten dira, 5ak eta 8ak bitartean. Parrokiak Ubitartean duen lokala erabiltzen dute. Ekintzak, irteerak eta ikastaroak ezezik, ludoteka ere badute. Lokalean bertan, era guztietako jolasak dituzte. Txikienekin ekintza aktiboak dira nagusi. 15 urteko gazteekin, ordea, gehiago hitzegiten da eta beraien esku uzten antolaketa. Gaur egun taldeko haurrak direnak gerora begirale izaten dira.

### Txirri-Txarra eguna

Txirri-Txarra eguna urtean behin antolatzen dute, apirila aldera. Gipuzkoako talde guztiak elkartzen dira eta egun osoan zehar ekintza diferenteak izaten dituzte, gin-kana, jaialdia, bazkaria...Dena dela, egun bateko ekintzak ezezik, konbibentziak ere izaten dira eta uztailean, eskualde mailako 15 eguneko udaleku irekiak.

Zuhaitzek antolatzen dituen ekintzak debaldekoak dira, uztaileko udaleku irekien kasuan izan ezik. Dena dela, datorren urteari begira bazkide txartel bat atera eta kuota sinboliko bat kobratzen hasteko asmoa dute. 500.000 pta. inguruko aurrekontua dute Aldundiak eta Udalak emandako dirulaguntzei esker

betetzen dutena.

### Gazteen Gurutze Gorria

Orain 8 urte inguru eratu zen Elgoibarren Gazteen Gurutze Gorria; Gipuzkoan 25 urte daromatza dagoeneko. 6 eta 13 urte bitarteko haurrei zuzendua dago eta Gurutze Gorriaren helburu berberak ditu honek ere: osasuna, bakea, solidaritatea, berdintasuna eta ingurugiroa. Mikel Lizarralde da taldearen koordinatzailea eta berak esan digunez, "asmoa, haur eta gaztetxo hauek nagusitu ahala, Gurutze Gorriko taldean sartzea da".

8 begiralez osatutako taldea da. Horiek guztiek begirale titulua dute eta, horrez gain, bat pedagogia ikasten ari da, beste bat psikologia, Gazte eta Ume maltratatuarekin espezializaturiko bi tekniko daude eta drogomenpekotasunean aditua den beste bat ere badago taldean. Horien guztien artean hainbat ekintza antolatzen dituzte, bakoitza adinaren arabera egokitua. "Sei urteko umeekin jolastu egiten dugu, batez ere jolas pedagogikoak erabiliz. Gaztetxoek ekintzak antolatzen parte hartzen dute". Besteak beste, Gabonetako Haur Parkera joan ziren iaz, itsuen integrazioerako ekintzak antolatu, mendira irteerak...



Urtean zehar, urrian hasi eta ekainera bitartean, larunbatero elkartzten da Gazteen Gurutze Gorria. Artetxan dute lokala, Udalak iaz eskainita. Bertan, materiala gorde eta bilerak egiteaz gain, arratsaldeko 5etatik 7etara, haur taldearekin elkartzten dira.

Taldeak Gurutze Gorriaren aurrekontutik zati bat jasotzen du materiala erosi eta ekintzak antolatzeko. Begiraleak bolondresak dira eta haurrek ere ez dute ezertxo ordaintzen. Iazko aurrekontua 26.000 pta. ingurukoa izan zen.

#### Kanpo ekintzak

Aisialdi taldea izateaz gain, Gazteen Gurutze Gorriak bestelako ekintzak ere antolatzen ditu herrira zuzenduak. Esate baterako, iaz jostailu solidarioen bilketa egin zuten; Errotatxok antolatzen duen prebentzio astean, berriz, Gin-Kana; aire libreko zine emanaldietan zabor boltsak banatzen dituzte ikusleen artean gero boltsak bildu

eta kontenedoreetan utziz. Cubarekin solidaritate kanpaina bati ere heldu zioten ikastetxeetan eskola materiala bilduz. Talde honek informazio sexualaren telefonoari buruzko informazioa banatu izan du. Gipuzkoako telefono honek urtean 3.000 deitik gora jasotzen

ditu. Zenbakia 320444 da. San Bartolome jaietan haurren eguna talde honek antolatu du lehen aldiz.



Gazteen Gurutze Gorrikoek lehen egunean aurkezpen jolasak egiten dituzte.

**Automatizazio produktuetan liderra den enpresa multinazionalak Euskal Herriko ordezkartzarako behar du:**

# Kontrol numerikoetarako Zerbitzu-ikuskatzailea

#### Eskatzen da:

- Injinerutza elektrikoan edo elektronikoan titulazioa
- Gutxienez 2 urteko esperientzia C.N.C. eta serbosistemetan
- Ingelesa menperatzea
- Lan-taldeak zuzentzeko eta koordinatzeko dohaina

#### Eskaintzen da:

- Soladuta ona eta enpresako autoa

**Bidali curriculum-a: FORMACION S.A.**

**Areetako etorbidea, 2 - 3. esk. - Areea 48930 (GETXO)**

**Aukeraketa prozesua erabat isilpekoa izango da.**



## ■ Elizako kanpoaldea abendurako prest

Elizako berritze lanetako batzordeko kide batek adierazi digunez, Gabonetarako prest egongo da San Bartolome parrokiako kanpoko alde guztia. "Abenduaren 20an ospatzen da 650. urteurrena eta egun horretarako abuztuan jarri ziren andamioak kendu eta fatxada behintzat, erabat amaituta egongo dela uste dugu". Kanpandorreko barruko lanak, berriz, apur bat atzeratuko dira seguruenez. "Kanpandorreko eskilaren erreformatze lanak amaitzeaz daude. Erlojuaren gela berritzea falta da eta kanpaiak poliki-poliki joango gara jartzen". Kanpaiak berritu egingo dira, motor eta kate berria jarriko zaie. Lan guzti-guztiak Aste Santurako amaitzeko asmoa dutela gaineratu digu batzordeko kideak. Lanen aurrekontua 45 milioi ingurukoa zen eta momentuz kopuru hori errespetatzeko ahaleginetan egi dabilza batzordekoak.

## ■ Gripearen kontrako 1.112 txerto eman dira

Atzo, osteguna, amaitu zen gripearen aurkako txertoaren kanpaina. Zazpi astetan zehar 65 urtetik gorakoek bai eta adin horretatik beherakoek ere txertoa jasotzeko aukera izan dute Osasun Zentroan. 65 urtetik gorakoaren artean, 853 herritarrek hartu du txertoa eta 65tik beherakoaren artean 259 lagunek. Orotara 1.112 txerto eman dira. Osasun Zentroko Arzuaga medikuaren esanetan "aurten ez dugu gripe epidemia edo izurriterik eduki oraindik, normalean abendu eta urtarril aldera izaten da. Kontsultan beherakoak eta katarro kasu ugari izan ditugu". Aurten ez da gripe gogorrik espero, "osasun agintariek behintzat ez digute gripe birus gogorrik datorrenik abisatu. Urte batzuetan gertatu izan da birus gogorrek egotea, boladaka izaten da, baina birusa aldatze fasean dagoenean gertatzen da hori".



## Greziarren bisita Elgoibarrera

NOW izeneko Formazio eta Enplegu proiektu europarraren barruan, Greziako Pella herrialdeko zazpi ordezkari Elgoibarren izan ziren joan den astelehenean gure herria ezagutzeko asmoz. Proiektu honen helburua emakumearen heziketarako urrats berriak ematea da. Horrela, joan den ekainean Deba Beheko emakume talde bat Grezian egon zen eta orain greziarrak izan

dira bisitatu gaituztenak. Ongi-etorri ekitaldian programaren bitartekari lanetan ari den DEBEGESAko arduradunek egin zieten harrera greziarrei. Alkateak DEBEGESAko lehendakari den heinean, gure herriaren nondik-norakoak azaldu eta datozen egunotan aurkeztuko den EKAIN proiektuaren berri eman zien, besteak beste. Elgoibar ezetik, eskualdea ere ezagutu dute greziarrek.




**Santa Ana kalea eta Sigmako zubiaren artean dagoen errotonda** martxan jarri zuten aste hasieran. Beraz, Sigmatik, Trenbide kaletik, Santa Ana kaletik edo Konportatik datozen autoek errotondari buelta osoa eman beharko diote edozein maniobra egiteko. Errotondaren bueltan aparkatuta egoten diren autoek ezingo dute bertan aparkatu, Gabilondo tailerra zegoen lekuan aparkalekua baitago. Errotondari esker zona horretan sortzen ziren trafikoko arazoak errazago konponduko direla uste dute Udaltzaingoko arduradunek.

## 250 nitxo eraikitzeke plana martxan

Dagoeneko martxan dago Olasoko Kanposantuan nitxo berriak eraikitzeke proiektua. Datozen egunotan proiektuaren oinarriak Estatu-ko Buletinean argitaratu eta hortik aurrera obren adjudikaziorako prozedura hasiko da. Belen Elorza Ongizateko zinegotziaren esanetan, "Kanposantuan toki falta zegoenez, iazko Domusantu egunean sondeo moduko bat egin genuen herritarren artean zenbat nitxo behar diren jakiteko. Udalak gutxieneko kopuru bat zeukan jarrita eta horiek baino gutxiago zirenez apuntatu zirenak, aurten beste kaptazio bat egin genuen eta azkenean, 210 nitxorentzako eskakizunak jaso ditugu". Guztira 250 nitxo eraikitzeke asmoa du Udalak. Nitxo berriak eraikitzearekin batera, panteoiak eta haur txikiak lurperatzeko zonan dauden nitxo zaharrak bota

gingo dira. Olasoko hilerriaren proiektua Ondarroa eta Oñatiko kanposantuetako esperientziak aztertu ondoren diseinatu da. "Oñatiko hilerria izugarri gustatu zitzaigun. Han, lurrazpian daude nitxoak, lau nitxo ilaran, eta lur gainean, belarra eta lapidak baino ez daude". Lur azpian kamara edo gela moduko bat eraikiko litzateke. Gela honetan sartzeko ahalbidea lurpera-tzaileak bakarrik edukiko luke eta hileta egunean soilik hildakoaren sendiak ere bai. "Sistema garbia iruditu zitzaigun; gaur egun, panteoia baino hobea". Nitxo bakoitzak 150.000ko salneurria du. Prezioaren %25a obrak hastean eman beharko da, eta gainontzekoa, amaieran. Lanak 97an hasiko direla uste du Belen Elorzak. Aurrera begira, guztira 1900 nitxo eraikitzeke aukera dago.



**Aste honetan Ongarrik** ez du zine klubeko pelikularik emango, bihar, ostirala, azaroak 1, jaieguna baita. Beraz, hurrengo emaldia datorren ostegunekoa izango da, azaroak 8. Ripstein mexikarraren "La mujer del puerto" filmea ikusi ahal izango dugu Herriko Antzokian gaueko 22,15etik aurrera. Hil honetan egun hauetan egongo da zine kluba: 14, 15, 21, 22 eta 28. Bestalde, zine klubeko kideak oso pozik daude joan den ostegunean izan zen zine klubaren lehen saioaren aurkezpenarekin. Donostiako Zinemaldiko zuzendaria den Diego Galán-en presentzia eta Ongarrikoek egin zuten aurkezpena gustuz hartu zuten Herriko Antzokira hurreratu ziren 150 lagunek.



## ■ II. Argazki Lehiaketa antolatu du Morkaikok

Morkaiko Mendizale Elkarteak mendizaletasunari buruzko II. Argazki Lehiaketa antolatu du. Neurri librean kolore zein zuri-beltzeko argazkiek parte hartu ahal izango dute. Egile bakoitzak 4 argazki aurkez ditzake gehienez. Argazkien atzealdean non eta noiz ateratakoak diren zehaztuko da. Lanak aurkezteko azken eguna abenduaren 20a izango da. Lehiaketaren ostean argazki guztiekin erakusketara egingo da Kultur Etxean abenduaren 30etik urtarrilaren 7ra bitartean. Antolatzaileek Morkaikoko bazkideak eta elgoibartar guztiak parte hartzera gonbidatu nahi dituzte.

## ■ Arazoak estolderian

Duela gutxi amaitu dira herriko estolderia edo alkantarila sarean egindako garbiketa lanak. Lan hauen ostean estolderia sarean hainbat akats topatu ziren, bestelako arazorik sortu ez zituztenak. Batetik, Pilar ikastetxearen pareko ur hustubide-hodiak apurtuta zeudela ikusi zuten. King-Kong eta Madala bitartean argi kaxa edo erre-gistroak lokatz azpian lurperatuta agertu ziren eta Santa Ana kaleko karkaba batean zikin pilaketa eta ur putzuak. Era berean, San Rokeko eta ibai ertzeko kolektoreetan zikin ugari pilatuta zegoen. Arazo hauek guztiak konpondu dituzte dagoeneko.

Pachi Pagola:

## “Margolari eta akuarelista kaletarra naiz”

Azken urteotan Lanbide Heziketarako Institutuan ibili den edonori ezaguna egingo zaio Pachi Pagola. Nahiz eta donostiarra izan, bera dugu azkenengo sei urteetan Mekanikako mantenimenduko arduraduna. 51 urteko pertsonaia berezi honek sena

artistikoa baduela erakutsi nahi izan digu. Izan ere, margolari eta akuarelista kaletar moduan milioi bat marrazki egin nahi ditu. Lanaren izenburua “Donostia 360°” da. Orrialde honetan Pachi Pagola piska bat hobeto ezagutzeko aukera izango dugu.

### - Zein esperientzia izan dituzu lan munduan?


- 1967an arotz ofizialia eta mekanika maitatza ikasketak bukatu nituen. Espainiar estatu osoan egin dut lan: Madrilan, Bartzelonan, Errioxan, Iruñean...; zortzi urte egon izan naiz arotz moduan Donostian eta gero 12 urte eman nituen montadore lanean. Orain lehen esan dizudan moduan, 91ko otsailetik nago Mekanikan “txapuza” lanak egiten eta benetan gustura nago zeren eta mutilekin oso ondo moldatzen naiz.

### - Artista ere ba omen zara.

- Bai, kaleko margolari eta akuarelista naiz. Askok gustatzen zait margotzea denborapasa modura. Nire asmoa milioi bat akuarela egitea da. Badakit ia ezinezkoa dela baina saiatu egingo naiz. Azken zapi urteotan 25.000 marrazki egin ditut, 3.000 urteko. Egin nahi dudana lanaren izenburua “Donostia 360°” da.

### - Margotzeko era berezia duzu.

- Kontxa pasealekuko banku batean eseritzen naiz baina mentalki 500



### “Erretratu bat egiten dudanean ez dut kobratzen, detaile bat eskatzen dut”

eta 1.000 metro gorago nago. Gauzak ikusteko era honi “A vista de pájaro” deitzen zaio. Puntu horretatik Donostia osoa ikusten dut eta horregatik jarri diot lanari “Donostia 360°” izenburua. Mundu osoan ni naiz era horretan margotzen duen bakarra.

### - Izen artistikoa Pachi Pagola duzu.

- Bai, zeren eta badago beste margolari bat Patxi sinatzen duena eta artearen munduan gaizki

ulertuak ez sortzeko Pachi Pagola sinatzen dut.

### - Donostian oso pertsonaia popularra omen zara.

- Bai. 1992. urteko abuztuan GEO aldizkarian atera nintzen Euskal Herria ordezkatzeko. Gainera, Donostian egiten den Zinemaldian pertsonaiarik popularrena naiz, jendea larrosak banatzen dizkio...  
- Zer moduzko harre-

### mana duzu Mekanikako ikasleekin?

- Oso ona. Nahiz eta 51 urte eduki ni beste mutil bat naiz eta beraiekin lagun modura portatzen naiz. Miasuekin baino harreman estuagoa dute nirekin. Nik ez daukat maisu kategorია eta ez ditut mutilak suspenditzen, horregatik, beste bat izango banintz bezala hartzen naute eta ni ere oso gustura nago beraiekin.

### Zer egiten duzu marrazkiekin?

- Gehienak oparitu. Erretratu bat egiten dudanean ez dut kobratzen, detaile bat eskatzen dut bakarrik. Ezin izango nuke artetik bizi, ez nuke papera ere erosteko aterako.

### - Badakigu Elgoibarko alkateari mezu bat bidali nahi diozula.

- Bai, bi gauza eskatu nahi nizkioke Guardia Zibilen kuartela zegoen tokian jartzeko. Batetik, iturri bat jartzea komenigarria izango litzateke ikasleek askotan eskatzen dute eta. Bestetik, toki berean 20 metroko altuerako sare bat jartzea kirol ekintzetarako.

JAVI LEON

FERISALTSAN

## Urriko azoka udazkena bezain epela izan zen



**U**dazken epel-epela dugu aurten goa. Beroa ez esatearren. Izan ere, azken asteotan izan dugun eguzkiaren zati txiki bat abuztuaren izan bagenu!

Aspaldian geunden hileroko azokara agertu gabe. Oporrak batetik, eta San Bartolome jaietako feria berezia bestetik, kasik akordatu ere ez ginen egiten zer-nolako giroa izaten zen bertan. Arratsaldeko 5ak aldera hurreratu ginen, beti bezala kamara eskuan. Eta sarreran hara non ikusten dugun ahari izugarri ederra. Berak, ez beste inork, bereganatu zuen gure lehenengo flasha eta hura dugu protagonista gure erretratuan. Bestelakoak ere bazegoen, noski. Esate baterako, ardiak. Hauek bata bestearen gainean, justu-justu sartzen ziren tokian pilaturik. Eta inguruan baserri-

tar mordoia. Bistan da horrelakoetan, hilean behin besterik ez bada ere, ederki pasatzen dutela euren kontuak elkarri esan eta azokako gaudu, makinaria eta bestelakoak komentatuz.

Itxura-itxuran joan zen urriko feria. Azarokoa hurrena. Eta hirugarrena, abendukoa. Gabon Zahar eguneko feria berezia. Urte amaiera!

# Ezagutzen al dituzu Elgoibarko baserriak?

## Elgoibarko baserrien gidaliburua

**D**eba Beheko Mendi Nekazaritza Elkarteak, DEBEMEN, urtero bezala hainbat proiektu burutzen ari da 1996. urtean zehar gure bailaran. Esate baterako, ur horniketak, bideen konponketak eta abar. Horien artean, eta aurtentzen Elgoibar herria sortu zela 650 urte bete-tzen direnez, DEBEMENek Elgoibarko baserriei buruzko liburu argitaratzeko asmoa du. Liburu honetan gure herriko baserri guztiak agertuko dira, bakoitzaren argazkia eta zenbait datu zehaztuko direlarik, ezaugarriak azpimarragarri eta adierazgarrienekin. Gaur egun dauden baserriak ez ezik, garai batean egondakoen berri ere emango da.

Liburu honetan gure herrian dauden berrehun baserriak auzoz auzo sailkatuko dira, auzo bakoitzean, sarrera gisa, hainbat kontu, anekdota eta bitxikeria kontatuko direlarik. Informazio hau biltzeko auzo guztietan bilerak antolatzen ari dira bertako baserritarren talde eta alkatearekin. Lerro hauen bidez eta DEBEMEN elkartearen izenean Elgoibarko auzo ezberdinetako alkateen lana eta laguntza eskertu nahi dut, datu ezberdinen bilketa lana burutzeko beraien lana eta laguntza ezinbestekoa izango baita.

Aurrerantzean elgoibartarrok, Altzola, San Pedro, San Migel, San Antolin, Urruzuno, San Lorentzo eta San Rokeko auzoak gertuagotik ezagutzeko aukera izango dugu, Elgoibarko baserriei buruz argitaratuko den liburu hau guztiok etxean eduki beharko genukeen liburu izango baita.



**Angel Loiola**  
DEBEMENeko  
lehendakaria



**Elisa Aranbarri, 60 urte**  
**Lizundia Txabola (Arriaga)**

Batzuk bai, San Antolin aldekuak eta. Ezautuko ez ditxut ba! Han bizi naiz ni eta. Urruzunokua ere bai, hurrian daude eta. Beste auzuetan gitxio. Tratua danekin dakat, ona da tratua ona eukitzia danekin.

**Jose Kortaberria, 59 urte**  
**Otso-Txiki (San Pedro)**

Nik ezautu asko eitxeitxut baina izenez esateko... Ni neu San Pedrokoa naiz eta hangiak eta San Migelekuak danak ezautzen ditxut. Beste auzuetakuak ezautu bai, oin, izenez ez hainbeste.



**Gabriel Estevez, 36 urte**  
**Ipintza (San Pedro)**

San Pedrokoak bai, bertan bizi naiz-eta duela 18 urtetik. Kanean bizi nintzenean ez nituen orain beste kontrolatzen. Orain San Migelekoak ere dexente ezagutzen ditut eta tratua daukat

gehienekin.

**Anastasio Etxaniz, 61 urte**

San Migelen bizi izan nitzan eta hangiak ezagutzen ditxut, ondiok ere tratua dakat hanguenekin. Ostantzian, beste barrixuetakuak ez ditxut asko ezautzen.



**Arantza Etxabe, 67 urte**

Ama San Lorentzokua zan eta aitxa San Antolinekua eta hangiak ezautzen ditxut eta tratua ere haundixa, familixia dakat han eta. Ostantzian apenas, baserri asko dao Elgoibarren eta danak ezagutzia gaitza da.

# Akey

**Akey baserria San Pedro bailaran aurkitzen da. Sigma auzora joan eta bertan, eskuin aldera dagoen bideskan gora abiatuta. Bide bazterrean dago, aurretik bista ikusgarria duelarik. Angelita Agirreren guraso eta aitona-amonak bertan bizi izan ziren. Hirugarren gizaldia da oraingoa eta gerora begira, Agurtzane alaba baserrian geratuko delakoan dago ama, "gustatzen jako hemengo bizimodua eta ganadua behintzat".**



**Akey baserria San Pedro bailaran dago, Sigmatik gora abiatuta.**

**N**o gustura ibiltzen da Angelita baserrian. Txomin mendarotarra da, baserriarra baita ere. Angelitarekin ezkondu eta kalera joan ziren bizitzera. Orduan jarri zuten ileapaindegia. Baina, Angelitak esan digunez, "gurasuak zaharrak zian eta laguntzera etorri bihar izan genduan". Baina ez du kezarik, "neri danetik eixia gustazen jata, etxata bat ere ardura. Ni beti konforme".

### **Bidea eta telefonoa**

Baserriko bizimodua asko aldatu da. Egia da oraindik orain lan gogorra izaten jarraitzen duela baina Angelitaren hitzetan, "bidia eta telefonua eukitzia bentaja haundixa da." Halere, oporrak zer diren ia ez dute ezagutzen, "ezkonbidaia egin genduanetik ez naiz ni hemendik urten. Domeketan jai eitzen deu eta ostantzian inguruko auzuetan erromerixak diala edo jaixak diala beti hurreratzen gera. Nahikua da hori neretzat".

### **Animaliak zentzudunak**

Astoriak ere ba omen daukate Akeyn, "laguntza haundixa ematen dau, batez ere, behin edo behin elur asko ein eta bidian behera kotxia jun ezin danian". Txuri, Apala, Txata, Gorri... Horiek eta beste batzuk dira

behiei jartzen dizkieten izenak, "segun eta zelakua dan, izen bat edo beste bat". Konfiantza osoa du Angelitak animaliangan, "zentzudunak

izaten dia. Ondo tratatzen baditxuzu ez da problemarik egoten. Gizon asko baino nobliuak dia". Gainera, zein eguraldi datorren jakiteko era ezin hobekoa dira, "nik tenporetan sinisten dot eta katuak ere segitxuan igertzen dau zelako denboria datorren. Nortera juten bada, txarra, sur-era bada, ona. Eta ardirak ere, neguan egualdi txarra datorrenian txintxarrixari eman eta eman ibiltzen dia bizperatik".

### **Erronomia sukaldean**


Angelita ez da sekula aspertzen eta ez du bakardaderik sentitzen, "keba! Radixuan Arrate ipini eta listo, oso alegria da!". Gaztetan ez zegoen ez telebistatik ez besterik baina "akordatzen naiz zela karnabaletan gure sukaldere etortzen zian auzokuak etxeko erropa zaharrekin mozarrotuta. Erromerixia eitzen genduan hemen bertan. Ostantzian, berba asko eitzen genduan etxian. Gure aitxa zana, batez ere, oso zalia zan kontu zaharrak kontatzeko, artua zuri-tzen ibiltzen ginian eta. Oin ere telebisua ikusten dot programia gustatzen bajata baina hala ere gurian berba asko eitzen da ondiok".

## **AKEY**

- **Auzoa:** San Pedro
- **Bizilagunak:** Txomin Arriola, 56 urte; Angelita Agirre, 54 urte eta Agurtzane Arriola, 24 urte.
- **Distantzia:** 3 km.
- **Altuera:** 300 m.
- **Hedadura:** 6 hektarea.
- **Espotazioa:** Txomin pelukeroa da kanean eta baserrian ardiak eta behiak dituzte, batez ere basoa garbitzeko. Ortuak etxerako produktuak ateratzen dituzte.

## **Hirukiak eta bikiak**

Orain lau urte inguru, behi batek hirukiak izan zituen Akey baserrian, "eta gero bikixak". Angelita belarra batzen zegoen egun hartan eta behia larrean, "demaseko tripia zakan eta ikusten naban segiduan eingo zabala umia. Jun nitzan eta hantxe ikusi naban txikixa. Baina, ondo begiratu eta ondiokan behixari beste hanka bat urtetzen jakola konturatu nitzan. Badator beste bat, eta gaizki gainera, pentsatu naban. Gizonari deitxu nion eta bixon artian lagundu ziogun behixari bigarrena eta hirugarrena eukitzen. Bi idiskuak zian eta bat bihaia". Azalpen logikorik ez omen du horrek, "batzuk izaten dia bikixak edo hirukixak eitxekuak. Inseminasiuakin izan zan gure behixana.

**Jon Loiola:****"San Pedron bizitza mantentzia lortu dogu"**

**21 urte ditu eta Baso teknikari eta kapataz ikasketak. Gaur egun DEBEMENeko brigadetako langilea da. San Pedro bailarako Usatorre baserrikoa den gazte elgoibartar honek badu zer kontaturik. Izan ere, duela urtebetetik hona, bere auzoko ordezkari edo alkatea baita.**

**- Nolatan San Pedroko ordezkari?**

– Auzo honetan bizitasuna falta zala eta zeozer ein bihar zala ikusita, pentsau gendun bailarako alkatetzara aurkeztia. Sei gazte elkartu ginan, programa bat egin gendun, auzotarren aurrian aurkeztu eta ni aukeratu ninduten ordezkari edo alkate.

**- 21 urteko alkate gaztea.**

– Ikusten da funtzionatzen degula eta auzuan zerbait egiten ari gara. Gazte izan edo zahar izan, nik uste berdin dala. Gazte eta irresponsable izate hori topiko bat da. Guk programa bat aurkeztu

gendun helburu batzuekin eta hori aurrera eramateko ez du zerikusirik gazte edo zahar izatiak.

**- Zein helburu dituzue?**

– Azpiegitura aldetik behar batzuk daude, bideak, ura... Bestetik, auzoko ordezkaria baserri guztiengana hurreratu behar da, haien arazoa eta beharrak zeituzk diren jaso behar ditu eta harremana sortu. Hirugarrenik, guk apostua egin gendun San Pedron domekero ospatu izan diren mezak mantentzeko. Apaiza ez dauanian ere, gaztiok egiten degu hitzaren ospakizuna. Horrez gain, San Pedroko eta San Migeleko umiekin irteerak egiten ditugu, uste baitugu gaur egungo umiek ez dutela ezagutu behar auzoen arteko desberdintasuna.

**- Ez al da ardura gehiegi?**

– Pertsona bakoitzak bizitzeko estilo bat aukeratzen du. Nere kasuan, nere kristautasun izaeraren barruan besteen alde lan egitea sar-

tzen da. Nik ordezkari hartu nuen auzotarren alde lan egitearren, auzotarren arteko harremanak hobetzearen, ohiturak mantendu... Gaur egun nagusitzen den indibidualismo hori ez dator bat nerekin. Nik nahiago det nere denbora besteen alde lan egiten ematea nire disfrute eta probetxurako bakarrik izatea baino.

**- Sanpedrotar ala elgoibartar?**

– Hori oso konplikaua da. Bizitzaz eta sentimentuz sanpedrotarra izanda ere, ni elgoibartarra naiz, euskalduna naiz, munduko biztanlea naiz... Momentu eta toki bakoitzean egin behar da lan beti ere guztion bizitzaren hobekuntzarako.

**- Ez omen zaizu alkate hitza gustatzen.**

– Ez, hitz potolo bat baino ez da eta neretzat ez du ezer esan nahi. Nahiago det ordezkari naizela esatea, nere auzoaren ordezkari. Horrek esan nahi du nik besteen aldeko zerbizua betetzen dudala.

**- Zer egingo zenuke Elgoibarko alkate bazina?**

– Ez dut sekula planteatu baina uste det lehenengo lana jendearrekin hitzeging, euren arazoak ezagutu, konfidantza ematea dela. Inolako distantzia edo mailaketarik jarri gabe.

**- Urte honetako balorazioa?**

– Nik uste det auzotarrengana hurreratu gara, azpiegitura arazoak ezagutu eta horiek konpontzearen lan egin dugu eta hori garrantzitsua da. Eta auzoko ohiturak mantendu eta bizitza ematea ere lortu degula esango nuke. Gazteak ez dira baserrian bizi eta kalera bajatzen. Auzoan bertan bizitza mantentzea lortu degu. Gainera, auzoetako ordezkariok bilera eta afariak egin izan ditugu eta harremanerako gauza ona da.

**Zein da hurrengo erronka?**

– Lortu deguna mantendu eta bultzatzea. Ez gara gauza utopikoetan oinarritu behar. Helburuak markatu eta egunero egin behar da lan.

GEHIGARRI HONETAKO KOLABORATZAILEAK: Asier Albizu, Agustín Irusta eta Iñaki Oñederra.



## Eulogio Astigarraga

### Lurperatzailea



- **Zer lurperatuko zenuke gustura?** ▶ Gorrotoa.
- **Zerk uzten zaitu lur jota?**
  - ▶ Jendian artian dauan alkar ulertu ezina.
- **Hil eta gero?** ▶ Salda bero! Ez dakat nik itxaropen haundirik.
- **Berriz jaioko bazina, emakume izan nahi zenuke?**
  - ▶ Gustura nao naizenakin.
- **Sekula oparitu al dizute lorarik?** ▶ Ez.
- **Eta gustatzen al zaizkizu?** ▶ Begira egoteko bai, larrosak eta.
- **Ofizio iluna da zurea.** ▶ Bai, han eztao jolasik eta erromerixarik, han dana tristuria eta negarra da.
- **Gorroteo duzun usainik?** ▶ Amba deitzen dan jabo bat. Behin kanposatuan bota zeben eta denbora asko egon nitzan aguantau ezinik.
- **Superstiziorik?** ▶ Ez.
- **Klaustrofobiarik?** ▶ Ezta.
- **Bildurra al diozu heriotzari?**
  - ▶ Bildurra ez da galtzen baina naturalidadiakin ikusten dozu.
- **Joango al zinateke gaueko 12etan kanposantura?** ▶ Hoixe baietz! Hildakuak ez dabe ezer eitxen. Biziduneri euki bihar jakue bildurra.
- **Nitxoa, lur azpia...** ▶ Erraustia nahi dot nik!
- **Betirako den zerbait ba al dago?** ▶ Natura.
- **Bizitzak duen unerik gozoena?** ▶ Nere emaztiakin elkarrizketa bat.
- **Orkesta batean zein instrumentu jo nahi zenuke?** ▶ Soinua.
- **Zein menu nahi zenuke azken afarian?**
  - ▶ Usten dot sustuaz afaldu aurretik hilko nitzakela.
- **Zer da Paradisua?** ▶ Bizitzatik heriotzera konturatu gabe jutia.
- **Zertan emango zenuke denbora aspertu gabe?** ▶ Lorategi batean.
- **Amets bat?** ▶ Sekula ez hiltzia!
- **Zer jarriko zenuke zure hilarrian?**
  - ▶ Idatzi ezer ez; erraustak botatako tokixan arbola haundi bat nahi nuke.

## GUSTUKO TOKIAN ALDAPARIK EZ

### DOINUA:

Neguaren zain (Xabier Lete)

Bertso kontuan eta kantuan  
 ibili ohi naiz gustura  
 astean zehar eskaintzen diot  
 merezi aina denbora.  
 Mundu latz honetan eskas garenok  
 ez goazenez inora,  
 arrapaladan igo nahi nuke  
 bertsoen aldapan gora.

Hamar urtekin dei egin zidan  
 neroni zaletasunak.  
 Giro honetan ikusi ditut  
 larrosak eta asunak  
 igaro arren une alaiak  
 pasa mementu lizunak,  
 aldapan gora bizirik dirau  
 nire bertso gaitasunak.



IRATI AGIRREAZALDEGI



### Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



## Ezkondu gabeko bikoteak

Aurrerantzean ezkondu gabe egon arren, elkarrekin bizi diren bikoteek Udaletxeko errolda zibilean izena emateko aukera izango dute. Hala onartu zuten alderdi guztiek aho batez. Ekintza sinbolikoa da batez ere honako hau. Aurrera begira, lege arazoren bat izango balitz herentziak edo beste zerbait dela eta, udaletxeko erregistroan izena eman duten bikoteek frogatua izango lukete euren elkarbizitza.

## Atxiloketak

Urriaren 25ean, goizeko 6ak aldera, Elgoibarko Udaltzaingoak bi pertsona atxilotu zituen. J.J.D.T eta A.R.F. eibartarrak dira eta, dirudienez, Errosario Kaleko Gorostiza jatetxean sartu omen ziren lapurreta egiteko asmoz. Jatetxe barrutik eskailerak gora hasi ziren goian etxebizitza zegoela konturatu gabe. Goian, lo zegoen emakumea zaratekin esnatu eta bikotearekin egin zuen topo. Hauek ihes egin zuten eta Plazan zeudela, Udaltzaingoak ezagutu eta atxilotu egin zituen aurretik lapurreta asko egindakoak baitira. Era berean, astebukaeran ezezagun batzuk Sigmarra sartu ziren eta han materiala hartu eta gero enpresako furgoneta batekin ihes egin nahi izan zuten. Halere, ate metalikoa ezin izan zuten ireki eta furgoneta zein materiala bertan utzita alde egin zuten.

## Presoak Euskalerriratzearen aldeko mozioa onartu zuen udalbatzak ostiraleko plenoan

Joan den ostiralean izan zen plenoan, IMH kokatzen den 22.000 m<sup>2</sup>-ko lur eremua Erreminta Makinaren Formazio Fundazioari eskaintzeari buruz hitzegin zen. Bestetik, EAJ-PNVk presoek Euskalerriratzeari buruzko mozioa aurkeztu zuen.



Preso elgoibartarrak Estatu espainiarrean sakabanatuak daude: Iñaki Jaio Huescan, Mikel Iriondo Caceresen eta Mikel Alberdi Asturiasen.

**E**lgoibarko Udalak orain dela 7 urte aipatu lurrak IMH eraikitzeko doan eskaintzeko konprometua hartu zuen eta joan den aste-ko plenoan onartu zen EAJ, EA, PSE, PP eta IUren aldeko botuez. Orain arte ez da posible izan, lur sail horren errepartzelazio definitiboa egin gabe zegoelako. Notarioak 22.000 m<sup>2</sup>-ak Udaltzaixearen esku utzi bezain pronto plenora eraman da gaia. Honen aurrean, HBko zinegotzia den Jabi Agirrek azaldu zuenez, “IMHk izaera erdi pribatua du eta ez dauka inolako harremanik Bernardo Ezenarro Institutuarekin nahiz eta biek hezkuntza mailan adar bera duten”. HBren esanetan, “Hezkuntza sailak gaia urtarrilean aztertzeo asmoa du eta egokiagoa iruditzen zaigu lur saila ordura arte ez ematea eta, ematekotan, Hezkuntzaren esku uztea aproposagoa da”. Honen aurrean Guillermo Garatek azaldu zuenez, “IMHren izaera juridikoa aztertzea ez dagokio plenoari. Gure betebeharrak, orain urte asko hartutako erabakia betetzea da”.

### Presoen aldeko mozioa

EAJ-PNVk presoak Euskalerriratzearen aldeko mozioa aurkeztu zuen. Presoek legez duten eskubidea etxetik ahalik eta gertuen egotea izanik, EAJk, hauen eskubidea betearaztearen aldeko mozioa aurkeztu zuen, hauen gerturatzen plana egitea eskatuz eta zigorraren zati gehiena bete dutenak baldintzapeko askatasuna izan dezaten, besteak beste. Isaak Loiola zinegotziak esan zuenez, “lehen Bellochek eta gaur egun Mayor Orejak daramaten politika ikusita, gure esku dauden ahalik eta medio gehien erabili behar dira presioa egiteko”. Pello Mendizabal HBko ordezkariak hartu zuen hitza jarraian, “pozten gara EAJren jarrera aldaketaz eta guk batzorde bat eratzea proposatzen dugu honen alde lan egiteko. Batzordean, alderdi politikoen ordezkariak eta Senideak edo Gestoretako ordezkariak egongo lirarteke”. Proposamen honen aurrean, EA eta EAJ-PNV gaia aztertzearen alde agertu ziren. EAJren mozioa onartu egin zen HB, EA, IU-EB eta EAren botuekin.

## Aurretxea (II)


- Mendebaldeko fatxadan hiru ardatzen inguruan hamaika baogune itsutuak edo irekiak zenba daitezke leiho, ate eta balkoien artean. Fatxada honetan zenbait aldaketa egin dira. Esate baterako, 2. eta 3. solairuko erdiko ardatzeko leihoak itxi egin dira, ezkerreko ardatzeko 1. solairuko leihoak, berriz, ireki eta balkoi batzuk edo balkoien zati batzuk itxi egin dira leiho bihurtuz, adibidez 1., 2. eta 3. solairuetan. Fatxada hau Sebastian hotelaren alboko fatxadaren ondo-ondoan egonik estetikoki ez da gehiegi zaindu.
- Hego aldeko fatxadak arkitektura aldetik ez du interesik.
- Lau isurkiko teilatuak teiletegal zabala du, zurezko gapirioak eta erlaiza landare eta geometri gaiez dekoratuak daude. Etxe barruko 2. eta 3. solairuetako eskailera-buruetan egurrezko atezangoak maisuki landuak daude.
- Aurretxea XVII-XVIII. mendeetako etxe dotorea izateaz gain, Altzolako lonja garrantzitsua ere izan zen. Lonja eta etxe honetan Balluibar izeneko lonjari familia bizi izan zen, fatxada nagusiko armarrarian irakur daitekeen bezala. Balluibartarrak, Altzolako enpresarien zerrenda osatu zuten.
- 1568an Juan Valuybar ageri da merkataria moduan. Valuybarrek Altzolako Andresek Mutrikun zuen San Pedro galeoia alokatu zuen Burgos-eko prior eta kontsulekin batera Flandesera arti-

lea eramateko. 15 urte geroago, lonjari eta txaluparien (gailupari) arteko soldaten inguruko istilu batean Joan Valuybar, Altzolako Juan Perez, Mocoronako Martin Perez eta Martin Andonaegik bi txalupariekin hitzezin zuten lonjarien izenean.

- XVII. mendearen hasieran altzolatari eta elgoibartarren arteko harremanak zailak zirenean Altzolan parrokoa sortu nahi zutelako, Elgoibarko Udalak herrilonja bat sortzea erabaki zuen. Erabaki hau, noski, Altzolako lonjarien aurka zihoan. Istilu honetan parte hartu zuen beste lonjariekin batera Juan Balluibarrek ere.

- Aurretxea etxe eta lonja izan eta gero, XIX. mende bukaeratik eta duela 20 urtera arte, gutxi gorabehera, bi pentsio zituen etxe bihurtu zen: "Juliana" eta "Dolores Aizpiri", hain zuzen ere.

PELLO ARRIETA



## Manuel Sodupe "Gelatxo" (1888-1953)



- 1888ko otsailaren 27an jaio zen San Lorentzoko Gelatxo baserrian.
- Gelatxo baserrian bizi izan zen eta ondoren, Agarren.
- 16 urterekin bere kabuz hasi zen ilara bateko soinua jotzen. Gerora, ilara biko soinua eskuratu zuen.
- Baserriko lanak egin ondoren, herriz herri eta auzoz auzo ibiltzen zen ezkontzak eta erromeriak alaitzen. Batzuetan emazteak laguntzen zion panderoarekin eta beste batzuetan koinatuak, Manuel Esnaolak.
- Dantza lehiaketetan ibilitakoa zen. Frantzian ere aritu zen eta jaiero San Lorentzon erromerian jotzen zuen.
- Omenaldi ugari egin zioten, Elgoibarren, Azpeitian, bai eta Madarixan ere. Pertsona ona eta Euskal Herri osoan zabaldu zen gizon honen izena.
- Gaur egun, bere seme Pedro "Gelatxo"k jarraitzen du tradizioarekin.
- Hil arte jarraitu zuen soinua jotzen, trikitixa, "agarrauak", ... denetik.
- 1953ko uztailaren 5ean hil zen Agarre baserrian.

JUANITO GOROSTIZA



**MEKANOSA**

Errosario 30  
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



**karkizano**

San Franzisko 12-14 - Tel. 74 05 49



## EMAITZAK

### Futbola

Elgoibar 8 - Lagun Onak 0 (2. jub.)  
**Haundi 2** - Hernani 0  
 Elgoibar 1 - Aitzgorri 0 (Infantilak)  
 Almen 1 - Elgoibar 4 (Neskak)  
 Lagun Onak 4 - Elgoibar 0 (Kadeteak)  
 Kilimon 1 - Elgoibar 0 (1. erreg.)  
 Oiartzun 1 - Elgoibar 1 (Jubenilak)

### Eskubaloia

Usurbil 8 - Unceta Elg. 13 (Kad. neskak)  
 Pneumax Elg. 42 - Hernani 6 (Kad. mut.)  
 Pagoaga Elg. 22 - Zarautz 14 (Jub. neskak)  
 Tecnomeca Elg. 27 - Arrasate 10 (Jub. mut.)  
 Arrasate 18 - Hyundai Elg. 26 (Seniorrak)

### Areto Futbola

Puerto Pasajes 9 - Elgoibar 2 (Autonomikoa)  
 Guby Zarautz 2 - Elgoibar 1 (1. maila)

## AGENDA

### Futbola, Mintxelan

#### Ostirala, 1

10,00 Urki B - Aretxabaleta (2. jub.)  
 12,00 Elgoibar - Zumaiaiko (Jubenilak)  
 15,15 Pedrusko - Antzuola (2. erreg.)  
 17,00 Elgoibar - Real Unión (Kadeteak)  
 18,45 Urki A - Elgoibar (2. jubenilak)

#### Larunbata, 2

12,00 Elgoibar - Zumaiaiko  
 15,15 Urki - Gazteak (2. erreg.)  
 17,00 Elgoibar - Antoniano (1. erreg.)

#### Igandea, 3

10,00 Eibartarrak - Gazteak (2. jub.)  
 12,00 Eibartarrak - Zestoa (2. erreg.)  
 17,00 Elgoibar - Soraluze (2. jubenilak)

### Eskubaloia, Kiroldegian

#### Ostirala, 1

10,00 Penumax Elgoibar - Almen Txiki (Kad. mut.)  
 11,30 Hyundai Elgoibar - Pasaitarra (Sen.)

#### Larunbata, 2

16,00 Unceta Elgoibar - Legazpia (Kad. nes.)  
 17,30 Hyundai Elgoibar - Hernani (Seniorrak)

### Areto Futbola, Kiroldegian

#### Ostirala, 8

22,00 Elgoibar - c. Estremeño (1. maila)  
 23,00 Elgoibar - Patxaran Navarra (Autonomikoa)



Elena Etxaniz:

## "Kirolerako jakinmina euki izan dot beti"

■ **49 urte eta kirolzale amorratua.** - Beti. Gaztetan marimatxo esaten ziaten. Nahiko potolia nitzan eta Don Luisekin balonmanuan hasten nitzanian ez jokatzeko esaten zian, bularrak mobitzen ziazelako. Baina beti euki izan det inkietude haundixa. Pelotan jokatzan naban, antxitxiketan toki danera...

■ **Urte asko egin izan duzu gimnasia?** - Etxian beti eitxen nitxun abdominalak eta hankekin ariketak. Gero Pilarrian hasi nitzan baina ernia bat zala ta, laga ein bihar izan naban. Gimnasia konbentzionalak kalte eitxen dia. Gero, 32 urtekin hasi nitzan antxitxiketan. San Lorentzora hiru buelta gitxi beintxatzen jatan eta Malatik Madarixara bueltia eitxen hasi nitzan. Nik ere ez dakitx zenbat kilometro eitxen nitxun astian.

■ **Gimnasia ez zenuen utzi.** - Ez. Behin amak esan zian: 'telebisiuan dao emakume bat, eta eitxen jon gimnasia dotoria!' Bideuan grabautakuakin hasi nitzan gimnasiakin.

■ **Orain haren erueda jarraitzen al duzu?** - Bai. Liburu bat atera dau eta oso kontuan hartzen ditxu posturak. Nik ez niuen postureri erreparatzen eta askotan nere buruari ematen niozen masajiak. Gero masaje kursillo bat ein naban eta hor-



tik hasi nitzan gorputza ezagutzen eta kontrolatzen.

■ **Gimnasia irakasten duzu.** - 35 urtetik 55era bitxarteko hogeita piku emakume gaok. Posturak oso inportantiak diaz: belaunak doblauta eta hanka gainen parian ligamentueri kalterik ez eitxeko, bizkarra zuzen,... eta estiramientuak asko. Nerekin gimnasia eitxen dabezan emakumiak ez dabe sekula kirolik ein. Gure edadian ziatikak, zerbikalak eta problemak eoten diaz eta horregatik soziuz jun bihar da.

■ **Lilatoia egiteko asmoa duzu.** - Ez jata komeni baina igaz Lilatoia eta Zumaixakua ein nitxun eta aurtan ere derrigor ein biot.

■ **Txirrindularitzako preparatzaile titulua duzu.** - Semia ziklistia zan eta jakinmin haundixa nakanez... Lelengo umieri gimnasia ematen

niuen eta gero hauen ameri. Azkenian Kiroldegixan bukatu det klasiak ematen.

■ **Zer eman dizu yogak?** - Askok dana botatzen laguntzen ditx. Arnasa hartzen laguntzen dizu eta burua kontrolatzen.

• **Adina: 49**  
 • **Egitea nahiko zenukeen kirola: Txirrindularitza**  
 • **Kirolaz aparte, zer duzu gustuko: Animalixak, txakurrak batez ere**

  
**ZURE HAURRENTZAKO  
 PRODUKTUEN BANATZAILEA  
 EUSKAL HERRIAN:**  
 - Kotxeak eta sehaskak

**BAMBINO**

Estazio kalea 3  
 ☎ 20 69 93  
 EIBAR

DURANGO: ☎ 681 14 83 / 620 35 72 - BILBO: ☎ 444 71 04

**TXURI BELTZ**

Taberna

San Franzisko 38



## ELGOIBARKO ESKUBALOI TALDEA

# Bost taldeek patrozinatzaile bana izango

**E**skubaloiko bost taldeek etxe ezberdinen babesa jaso dute 96/97 denboraldirako: Pneumax, Hyundai, Tecnomeca, Unceta eta Pagoaga. Enpresa hauek emandako diruaren truke ekipo bakoitzeko jokalariai etxe babeslearen izena eramango du kamisetan. Izan ere, patrozinatzaileen babesa beharrezkoa da 1.700.000tik gorako aurrekontua berdintzeko. Era berean, aurten berrikuntza bat jarri dute martxan zuzendaritzari dago-kionean. Aurtengo zuzendaritzan ekipo bakoitzeko bi guraso egongo dira, ekonomia arduradun bat, Federazioarekin harremanetarako pertsona bat eta idazkaria.

Urriaren hasieran ekin zioten ligari eskubaloiko bost taldeek. 96an lortutakoak ez dira, ez, makalak izan: Kadetek mutilak Ligako bigarrenak eta Kopan finalerdietara iritsi ziren. Beñat Leibar jokalaria Euskadiko selekzioan eta Gipuzkoakoan aritu zen eta Ander Goikoet-

xea eta Kepa Mendikute Gipuzkoakoan. Kadete neskek Ligan eta Kopan txapeldunordeak izan ziren. Euskadiko selekzioan parte hartu zuten Leticia Astray, Arianne Peñaranda eta Ainhoa Torresek eta Gipuzkoakoan Leticia Astray, Irma Aldazabal, Ainhoa Torres, Amaia Jauregi eta Lore Agirreazaldegik. Honez gain kiroltasunaren saria jaso zuten eta Gipuzkoako jokalaririk nabarmenena izendatu zuten Lore Agirreazaldegik. Jubenil mutilak bigarren geratu ziren ligan eta senior mutilak bigarren ligan eta lehen territorialera igotzea lortu zuten. Jokalariaiek 15.000 pta.ko kuotari esker aseguruia dute bai eta C.D.ko

bazkide izateko aukera ere. Futbol elkar-teko bazkide izaterik nahi ez dutenei 10.000 pta. itzultzen zaizkie.



**UNUN ELGOIBAR (KADETE NESKAK)**



**PNEUMAX ELGOIBAR (KADETE MUTILAK)**



**PAGOAGA ELGOIBAR (JUBENIL NESKAK)**



**TECNOMECA ELGOIBAR (JUBENIL MUTILAK)**



**HYUNDAI ELGOIBAR (SENIOR MUTILAK)**





## Azaroaren 4tik 10era bitartean ospatuko da HIESaren Astea Errotatxoren eskutik

**E**rrotatxo Elkarteak aste osoko ekitaldiak antolatu ditu HIESari buruzko informazio eta prebentzioaren inguruan. Astelehenean, hilak 4, hasiko dira ekitzak HIESari buruzko erakusketaren inaugurazioarekin. Asteartean, erakusketarekin batera mahai informatiboak jarriko dira Kultur Etxean eta Erresidentziako Von Wichmann medikuak, Hernaniko "Nahia" elkarteak Javier Madariagak eta Bermeoko "Txo HIESa"ko Josu Imanol Unanuek mediku eta pazientearen arteko harremanaz hitz egingo dute, VIHri buruzko ikuspegia beraien ikuspuntutik landuz. Saio hau arratsaldeko 7,30etan hasiko da Kultur Etxean. Beste hi-

tzaldirik ere egongo da, sexualitatea eta VIHren aurrean zein jarrera har daitekeen aztertuko duena. Ostegunean izango da 7,30etan hau ere, EHGM, "Harri-Beltza" eta Madrileko HIESak jotako gaixoen elkarteak kideen partehartzearekin. Ostiralean, hilak 8, Algara taldeak "Curita Cañon" antzezlanaren taularatu du Herriko Antzokian. Larunbatean futbol partidu sorpresa egongo da, eguerdiko 12,30etan Mintxetako futbol zelaian.

Amaitzeko, igandean, HIESaren ondorioz hil diren guztiei omenaldi beroa egingo zaie Plaza Handian. Ohitura denez, Errotatxoko lazo gorria lehi guztietan jartzeko deia zabaldu nahi du.



## Hitzegin ingelesez gaurtik aurrera. Orain egin dezakezu!

*Multimethod®-ekin: pedagogia, teknologia eta giza-baliabiderik onenen konbinaketarekin, bakarra mundu osoan.*

### **Multimethod®-en abantailak:**

**1. Ordutegi librea**

Ikasleak klase eguna eta ordutegia aukera ditzake.

**2. Klaserik galdu gabe**

Denboraldi batean ikasleak huts egiten badu ere, ez du klaserik galtzen. Ikasgai guztiak zikloka errepikatzen baitira.

**3. Ordu-mugarik gabe**

Ikasurtean zehar ikaslea nahi beste klasetara

joan daiteke. Prezio gehigarrik gabe.

**4. Giro berezia eta atsegina**

Wall Street ikastegiaren ezaugarri nagusiak: instalazio modernoak, irakasle onak eta giro atsegina.

**5. Arrakasta bermatzen dugu**

Ez baduzu ingeleza ikasten dirua itzuliko dizugu. Wall Street Institutetek emaitzak idatziz bermatzen ditu.

*Deskontu bereziak  
lehenengo  
50 matrikabatuentzat*



**WALL STREET INSTITUTE**  
SCHOOL OF ENGLISH

**Ingelesa Wall Street Institute-n ikasten da**

**Dohaineako deiak: 902 399 399**

**Julian Etxeberria 20 - EIBAR**

Beste zentro batzuk Euskal Herrian: Bilbo, Gasteiz, Donostia eta Barakaldo.

## AZAROAK 1, DOMUSANTU EGUNA

# Sinestu ala ez

### Batpinoa, jaunartzea, sendatza...

**Jon:** “Gu kosziente ez izan arren bataioan Jaunaren aurrean agertzen gera eta kumuniuan harreman horri eusten diozu. Sinesmendun naizen aldetik denboria dakatenian konfirmazioa ere ingo dot”.

**Iñigo:** “Ni bataiatuta nago eta jaunartzea ere egin naban baina neretzat ohi-txura bat bakarrik da. Seguruena aurrera begira nere seme-alabekin gauza berdina ingo dot, ohi-txuriagatik batez ere. Gero eurek aukeria eukiko dabe beste bide bat hartzeko.

### Eliza

**Jon:** “Kristauok Jaunarekin erlazioa eukitzeko dakagun etxia da. Gure pekatuetaz garbitzeko dago apaiza. Ni ahal dotenian juten naiz mezetara”.

**Iñigo:** “Elizia ez da ezer espeziala. Igual egongo da indarren bat hor goixan baina ez det sinisten, ez dao ezer demostrata zientifikoki eta hori gertatzen ez dan bitxartian...”.

### Fedea

**Jon:** “Nik ere gurasoengana jotzen dot lelengo baina arazua piskat haundixaua darian, Jaungoikuari eskatzen diot.


**Iñigo:** “Nik guraso eta lagunengan dakat fede guztia. Edozein problema dakatenian eurengeana jotzen dot laguntza bila”.

### Ingurua

**Jon:** “Ez jata zaila itxen naiz eta badauden lagunak sinisten ez dabenak eta batzuetan gauzak esan. Horien aurrian onena muzin eixia da. Nik argi dauzkat nere ideiak”.

**Iñigo:** “Fededunak errespetatzen ditxut

**Jon Ulibarririk 18 urte ditu. Iñigo Iparragirrek 17. Biak elgoibartarrak dira. Biei gustatzen zaie lagunekin atera eta disfrutatzea. Biak ilusioz ikasten ari dira beraien etorkizuna landuz. Gauza batean dira desberdinak. Jon fededuna da, kristau sinismenduna. Iñigo, berriz, ez. Bihar, azaroak 1, Domusantu eguna dela kontuan izanik, elkartu eta gai desberdinen inguruan duten iritzia jakin nahi izan dugu.**



eurek errespetau bihar nauten bezela”.

### Bizitza

**Jon:** “Bizitza etapa bat da gero Jaungoikuakin elkarteko. Ahalik eta poztasun haundixenakin pasau bihar da”.

**Iñigo:** “Etapa bat da baina jaiotzerakuan hasi eta hiltziakin amaitzen dana, etapa bakarra. Horregatik ahalik eta

gehixen aprobe txau bihar da”.

### Heriotza

**Jon:** “Ez dia bildurrik ematen. Bizitza eta gero beste bat hobea hasten da zeruan”.

**Iñigo:** “Hiltzen naizenian dana amaitzen dala pentsatzen det eta bildurra ematen dia horregatik. Ez dotelako amaitzerik nahi”.

### Baloreak

**Jon:** “Osasuna, familia eta lagunak dia inportantienak”.

**Iñigo:** “Neretzat ere horiek dia inportantienak. Asko zaindu bihar dia horiek danak”.

### Sexua

**Jon:** “Ezkondut aurretik ezer egin gabe egotea eta gero haurrak eukitzeko bakarrik kontu zaharrak dia. Garai berrixetara egokitxu bihar da”.

**Iñigo:** “Ez zait ondo iruditzen ezkondu arte itxointzia. Parejia euki ezker eta bixak ados egon ezker, ez dao zertan oztoporik egon bihar”.

### Zelibatoa

**Jon:** “Apaizak Jainkoarekin hitzarmena egin daben arren, pertsonak dia eta askatasun guztia dake nahi badebe ezkontzeko”.

**Iñigo:** “Pertsonak dia eta injineru bat ezkondu laiken bezela, apaiz batek gauza bera egin dezake. Ez dia inkonpatibliak”.

### Bizitzako lema

**Jon:** “Bizitzako etapa hau ahalik eta gustoren bizitza. Zure buruakin gustura egon, askatasunakin eta inoren menpe egon gabe”.

**Iñigo:** “Bizitza bat eta bakarra danez, ahalik eta onduen pasau bihar da”.



## Salerosketak

- ❖ SAXO TENORE BAT erosiko nuke. ☎ 74 28 53
- ❖ Bigarren eskuko lanparadun BI SOLARIUM-ohet salgai. Prezio eta egoera onean. ☎ 74 19 23 / 74 21 82
- ❖ OHE BAT eta 103 cm-ko BEROGAILU elektriko bat saltzen da. ☎ 74 24 57
- ❖ EHIZARAKO ESKOPETA salgai. ☎ 74 17 20
- ❖ AKORDEOI BAT erosiko nuke. 96 bajuko eta piano teklatura ☎ 74 03 01
- ❖ FORD SCORT R-S TURBO autoa saltzen dut. SS-AG. Oso egoera onean. ☎ 74 05 14/74 15 16
- ❖ HIRU HUSKY SIBERIAN txarkurkume saltzen ditut. ☎ 74 41 45 Javi
- ❖ ERREPIDEKO BIZIKLETA bat salgai. Kuadroaren tamaina 50. Campagnolo Mirage. 105 shimano kanbioak. 2 urte. 65.000 pta. ☎ 75 51 75 Javi
- ❖ LIBURU hauek erosiko nituzke: "Intermediate Matters" (Ed. Longman), "The Heinemann English Grammar" (Ed. Heinemann) eta "Dublin People" M. Binch (Ed. Oxford. Bookworms kolekzioa). ☎ 74 07 74 Igor (gauetz deitu)
- ❖ "La Unión" elkarteko bazkide akzioa salgai. ☎ 74 05 05
- ❖ Golf GTI autoa saltzen dut, SS-AS. Oso egoera onean. ☎ 17 44 33
- ❖ BIBOLIN BAT saltzen dut oso egoera onean. ☎ 74 26 35 Manuela
- ❖ REM/IEEko lehen mailako LIBURUAK erosiko nituzke. ☎ 74 12 91
- ❖ BX-RE AUTOA saltzen dut. Egoera onean. ☎ 74 08 85
- ❖ LOKAL BAT saldu edo alokatzen dut Urasandi kaleko 7an. ☎ 74 18 94/27 78 08 Angel
- ❖ Auto bat daukat saltzeko. TALBOT SOLARA. Egoera eta prezio onean. ☎ 74 30 02 (gauetz)
- ❖ ILARAKO MONOPATINAK saltzen ditut, lau erroberakoak. ☎ 74 20 95 Iban
- ❖ AUTO TELEGIDATUA saltzen dut bateriarekin. Egoera onean. ☎ 74 22 75

- ❖ TRABESIAKO ESKIAK saltzen ditut. Mendiko materiala ere bai: arnesak, sokak, katu hankak. ☎ 74 40 62 Agustin

## Lana

- ❖ Emakumeak pertsona nagusiak zainduko lituzke. ☎ 74 04 75
- ❖ 17 urteko neska pertsona nagusiak zainduko lituzke. Egunez edo gauetz. Etxeko lanak eta jatorduak ere egiten ditut. Esperientziarekin. ☎ 74 36 38
- ❖ Emakume batek nagusiak zainduko lituzke. Esperientzia daukat. ☎ 75 62 18
- ❖ Klinikako laguntzaile eta Gutxitu Psikikoen Hezitzaile tituluak dauzkat eta lan egingo nuke. ☎ 74 34 68
- ❖ Neska euskaldunak urte guztian zehar gaixoak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Autoa dut. ☎ 75 61 79

## Partikularrak

- ❖ Ingeleseko irakasle bat behar dut goizez klaseak emateko. Oinarritzko maila. ☎ 74 21 84
- ❖ Marrazketa industrial eta die-driko partikularrak ematen ditut. ☎ 74 43 98 Iñaki

## Etxebizitzak

- ❖ Pisu salgai Erretxindi kalean. 4 gela, sukaldia, egongela, komuna, ganbara eta gas natural berogailua ditu. ☎ 74 44 66 Arantxa
- ❖ Deuston pisua betetzeko neska behar da. ☎ 74 33 38 Vanesa
- ❖ Pisu bat behar dut alokatzeko Elgoibarren lehenbailehen. ☎ 909 22 36 27 Leire
- ❖ Pisu salgai Bernardo Ezenarro 5ean. Berogailua, 3 logela, jangela, sukaldia, komun bat eta 2 ganbara. ☎ 74 15 90
- ❖ KONPARTITZEKO etxe bila nabil. ☎ 74 09 44
- ❖ Pisu salgai SANTA ANA kalean. 3 logela, sukaldia, jangela, 2 komun eta ganbara. ☎ 86 12 47 - 74 35 86

- ❖ Pisu bat ALOKATU nahi dut Elgoibarren. ☎ 45 35 59
- ❖ Etxebizitza SALTZEN DA SAN BARTOLOME kalean. Sukaldia, bi komun, bi logela eta egongela-logela ditu. Jantzita eta berritua. ☎ 74 04 99
- ❖ Beste batzuekin bizi izateko PISU BILA nabil Mendaron edo Elgoibarren. ☎ 61 96 60 Ana
- ❖ Jantzitako pisua daukat alokatzeko P. Muguruzan. ☎ 74 04 75

## Garajeak

- ❖ Garajea salgai Karakolaren alboan, pista beltzean. Merke. ☎ 74 27 73
- ❖ Auto txiki batentzako marradun garajea alokatzen dut. Batzoki azpian. ☎ 74 01 13
- ❖ Garaje bat saltzen dut Arregitorre leian. ☎ 74 30 81
- ❖ Garaje itxi bat salgai Arregitorren. ☎ 74 12 53 (Pilar)
- ❖ Garaje itxi bat saltzen dut Santa Anan. ☎ 74 21 21

## Agurrak

- ❖ Zorionak Patxi Aranberri gaur, hilak 31, 47 urte betetzen dituelako. Familiaren partez.

## Bestelakoak

- ❖ Urriaren 19an, goizean, Chipie markako lepoko zapi bat galdu nuen kalean. Fruta irudiak ditu. ☎ 74 09 69
- ❖ Errealeko txandalaren goiko partea aldatu nuen IMHn nirea ez zen beste bat hartuta. Nirea 12a zen eta 8a hartu nuen. ☎ 74 31 41 arratsaldeko 7etatik aurrera
- ❖ Haizea emakume taldeak idazteko makina eta kalefakzio bat behar ditu. ☎ 74 32 06
- ❖ Harri zuri bat duen aliantza galdu nuen Kiroldegian. Barruan inskripzio bat dauka. ☎ 74 33 73
- ❖ Mendiko kapa berde galdu dut San Roke inguruan. ☎ 74 16 61
- ❖ Etxebizitza jatzeko denetik behar du Caritasek. ☎ 74 10 09 / 74 12 57

## PREMIAZKO TELEFONOAK



### OSASUNA

- Anbulategia:
- Larrialdiak.....461111
  - Txanda hartzeko.....743354
  - Planning-a .....742950
  - Alkoholiko Anonimoak..740385
  - D.Y.A (anbulantzia) ..464622
  - Gurutze Gorria.....743864
  - Mendaroko Ospitalea756264
  - Drugomenpekotasun Z..741008
  - Odol Emaileak .....743936

### GARRAIOAK

- Eusko Trenbideak.....740442
- PESA (Eibar).....102131
- Taxi geltokia.....740898

### UDALA

- Euskara Zerbitzua.....744366
- Udal Kirol Patronatua744415
- Kultura Zerbitzua .....742158
- Mendaroko Udala ....756100
- Ongizate zerbitzua...743736
- Udaletxea .....741050
- Udaltzaingoa .....741394

### BESTELAKOAK

- Caritas .....740142
- Elgoibarko Izarra.....741626
- Kontsumo Bulegoa ...743088
- Liburutegia .....743525
- Musika Eskola .....742145
- Mintxeta .....744315
- Parrokia.....740842
- Postetxea.....741547

### HIRUGARREN ADINA

- San Lazaro Egoitza...740296
- Zaharren Biltokia .....740526

### IKASTETXEAK

- Haur Eskola.....74 21 41
- Herri Eskola .....74 08 79
- I.M.H. ....74 41 32
- Institutua .....74 02 67
- Ikastola .....74 44 41
- L.H.I.....74 44 80
- Pilar Ikastetxea .....74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

- BARREN.....74 41 12
- El Diario Vasco .....74 40 73
- El Correo Español...74 10 82
- Egin.....10 84 21
- Zazpiki irratia .....74 34 74

# ASTEAN ZEHAR

## 1 OSTIRALA

22,15 ZINEA  
"Twister"

## 2 LARUNBATA

19,30-22,15 ZINEA  
"Twister"

## 3 IGANDEA

16,30-19,30-22,15 ZINEA  
"Twister"

## 4 ASTELEHENA

22,15 ZINEA  
"Twister"

## 7 OSTEGUNA

22,15 ZINE KLUBA  
"La mujer del puerto"  
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba



## HIESAren ASTEA

Astelehena, 4  
19,00 HIESari buruzko erakusketa. Kultur Etxean

Asteartea, 5  
19,00 Erakusketa eta mahai informatioak. Kultur Etxean  
19,00 Hitzaldia: "Medikuak eta pazienteak: VIHari buruzko ikuspegi". Hizlariak: M. Angel Vonn Wichmann Erresidentziako medikua, Javier Madariaga Hernaniko Nahia-kidea eta Josu Imanol Unanue Bermeoko "Txo HIESa"ko ordezkaria. Kultur Etxean.

Asteazkena, 6  
19,30 Hitzaldia: "Sexualitatea eta VIHaren aurrean, zer?". Hizlariak: Fermin Etxeberria EHGAMeko kidea, Oiartzungo "Harri-Beltzako Lierni Irizar eta Madrileko HIES gaxoen Elkarteko Cortés Bracero de La Hoz. Kultur Etxean  
Laguntzailea: Zazpiki Irratia

Ostirala, 8  
22,15 Antzerkia: "Curita Cañón".  
Taldea: Algara. Herriko Antzokian

Larunbata, 9  
12,30 Futbol partidua. Mintxetan

Igandea, 10  
13,00 HIESaz hildakoei omenaldia  
Partehartzaileak: Haritz, Bertso Eskola, Trikitilari Eskola, Txalaparta Taldea eta Bereziki

Jarraian Giza-katea Plaza Handian  
ANTOLATZAILEA: ERROTATXO

## txandak

### FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
1, ostirala:	Yudego	Bidasolo
2, larunbata:	Yudego	Ormazabal
3, igandea:	Yudego	Anduaga
4, astelehena:	Etxeberria	Etxeberria
5, asteartea:	Etxeberria	Etxeberria
6, asteazkena:	Etxeberria	Etxeberria
7, osteguna:	Etxeberria	Etxeberria
8, ostirala:	Bidasolo	Bidasolo


### OKINDEGIA:

1, ostirala: IDARRAGA  
3, igandea: IDARRAGA

## ZineA

**Twister** Zuzendaria: Jan De Bont. Antzezleak: Helen Hunt, Bill Paxton, Jami Gertz.

EEBBetako bi zientzilari talde tornadoen fenomenoena ikertzen ari dira. Batetik, Jo eta bere taldeak tornadoen indarra neurtzeko sistema bat garatu dute eta hori egiaztatzeko aukera egokia baino ez dute behar. Bestetik, Jonas doktorearen taldea da. Inolako eskrupulorik gabeko gazte bat da eta beste taldearen sistema kopiatu egin du. Honek ere tornado bat neurtu nahi du baina ez dauka instinturik.



## ETXEBERRIA

### Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak. Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR  
Tel.: (Biltegia) 74 13 27 (Etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 908 77 07 01

# CENTRONET

T I N D A T E G I A

## Orain Elgoibarren

ERROSARIO KALEAN, LIZZY DENDAN

### ZERBITZURIK ONENA PREZIO INTERESGARRIENETAN

- Alkandorak eta korbata . . . . . 295 pta.
- Prakak, gonak eta blusak . . . . . 595 pta.
- Soinekoak eta txaketak . . . . . 795 pta.
- Berokiak, gabardinak eta txaketoiak . . . 1.095 pta.

**ESKAINTZA BEREZIA: Mantak 1.395 eta Edredoak 1.795 pta.**

Bidebarrieta, 42 behea. 20600 EIBAR (Gipuzkoa) Tel. 943 20 42 63

# ZELETA

## Barazkiak



JATORRIKO KALITATEA



Egunero batu eta ontziratzen dugu.

Erabateko kontrola produkzio eta hautaketan.

0,0 tratamendua.

**BETIKO DENDETAN AURKITUKO GAITUZU.**

ZELETA BASERRIA - San Migel Auzoa - ELGOIBAR

# ITURRI Taberna

**IREKI BERRIA**

Foruen enparantza, 5 - ELGOIBAR

*Herriko tokirik onenean*



*Gosariak, pintxoak,...*



*Goizeko Getatik zabalik*

